



# E.T.S.

## En Tol Sarmiento

### HACIA LA LUNA

En Tol Sarmiento (ETS) taldearen izenak bi era ditu esateko. ETS siglak erabiliz eta eteese ahozkatuz. Edo izenaren luzaera guztia, En Tol Sarmiento. Norberak aukera dezala bidea, baina honek beti eramango gaitu Arabara, Arabako Errioxara. En Tol Sarmiento taldea 2005ean sortuko da Ekora herrian nahiz eta udalerraren izen ofiziala lekora/Yécora den. Hemen ere aukeraketa herriaren izenean. En Tol Sarmiento taldea hirukoa (bateria, baxua eta gitarra) izango da 2007ra bitartean, punk eta rock musika egingo du. Gero ska doinuak nagusituko dira eta horretarako haize tresneria fitxatuko dute (tronboia eta tronpeta). 2008an argitaratuko da ETS taldearen sei abestiko maketa-diskoa, autoekoiztutako "Vendimia seleccionada". Lehen disko honekin batera zuzenekoak iritsiko dira eta egun 80tik gora egin dituzte.

En Tol Sarmiento (ETS) taldearen lan berria, "Hacia la Luna", 2012ko martxoan grabatu eta masterizatu du Dan Diez soinu teknikariak Sonovisión Rock Lab estudioan (Logroño, Errioxa). Hiru ahots laguntzaile izan ditu diskoak: Iñaki Ortiz de Villalbak (Betagarri) ahotsa du "Garrasi ukatua" abestian. Enrique Villareal "El Drogas" aurkituko dugu bere ahotsarekin "Díselo ya" abestian. Kike Lozak ahotsa sartu du "Nortasun galdua" abestian eta Dani de Ayala txalapartariak "Arabian Euskaraz" abestian jo du.

En Tol Sarmiento (ETS) Arabako Errioxako taldearen bigarren diskoaren izenburua "Hacia La Luna" da. Diskoa hainbat galderekin hasiko da, ea non dagoen itxaropena eta non askatasuna. Erantzuna Hilargian aurkituko omen dugu eurek egindako edabe pizgarria edan ondoren zoriona eta festa ere ekarriko digula, baita estralurtarrei ere. En Tol Sarmiento (ETS) taldearen diskoaren muina ska doinuetan du babesik sendoena baina ez du rock, reggae eta punkaren eskasirik. Euskal Herri multikulturala aldarrikatuz datoz arabar Errioxako En Tol Sarmiento taldekoak, jakitun beste kontzientzia askeek gureari eman diezaioketena. En Tol Sarmiento taldeak, batez ere euskara eta gaztelania erabiliko dituzte baina frantsesa eta ingelera dituzten abestiekin ere egingo dugu topo. En Tol Sarmiento (ETS) taldeak jaia, martxa, ongi pasatzea eta alaitasuna bultzatuko du ska doinuekin eta letretan mundu askeago baten alde, hausnarketa politikoa zein soziala derrigortzat hartuta. En Tol Sarmiento taldeak mundu libreago bat beharra ikusten du, eta musika, jaia eta pentsandua horretan du jarrita. Dantzara!

**En Tol Sarmiento (ETS) taldearentzat jaia, martxa, ondo pasatzea, alaitasuna... dira musikaren bizigarri eta osagai indartsuenak. Ska eta rocka batuta.**

Gure musikaren bidez lortu nahi dugun helburu nagusia da, batez ere zuzenekoetan, entzule-ikusleari helaraztea dibertimendua, dantza egiteko gogoia eta jai-giro ezin hobeez ahalik eta gehien gozaraztea. Horretarako, ska musikaren jariatutasuna eta rockaren indarra bateratu izan ditugu gure haize tresnek, tronboiak eta tronpetak, erantzten duten energia baliatuz.

**En Tol Sarmiento (ETS) taldeak bere izenarekin Arabak eta Errioxak duten mahatsari egin nahi dio gorazarre?**

Mahats eta mahastiz inguratutik bizi garenez, horien eragina izatea nahiko gauza arruntzat dugu. Egia esateko, gure taldearen izena ez da gure atalik indartsuena, hori gure jai gogoari utziko diogu, baina hasieratik garbi izan dugu Arabako Errioxa gure markak bereizten gaituela bestengandik, ez bakarrik hemen baita kanpoan ere. Bitxia da ikustea jendeak ez dakiela zer den xirmendu bat, horretaz konturatzen dira saiheskiak xirmendutan erreterara gonbidatu ondoren.

**En Tol Sarmiento (ETS) taldeak zergatik joan nahi ilargira? Zuen hitzek jaia eta kritika elkartzen dituzte.**

Egun, eta baita garai geheintsuenetan ere, justizia ezak, desberdintasunak eta egoera maizetan gure bizitzaren aurkako ekintzak baino ez ditugu aurkitzen eta oso gaizki igarotzea baino ez dakarkigute. En Tol Sarmiento (ETS) taldeak egoera deseroro horiek borrokatu nahi ditu eta bizimodu askeago bat erreibindikatu, eta Lurretik hankak askatuta bidai bat egin Hilargirantz ("Hacia la Luna") non gure benetako zorion egoera lortzerik izango dugun. Etorri nahi?

**En Tol Sarmiento (ETS)**

**Iñigo Etxezarreta: ahots nagusia eta gitarra**

**Rubén Campinún: baxua eta koruak**

**Floren Díaz: bateria**

**Rubén Terreros: tronpeta**

**Javier Lucas: tronboia**



baga-biga musika ideiak  
telf. 618 072 076 / 026  
[www.baga-biga.com](http://www.baga-biga.com) / [info@baga-biga.com](mailto:info@baga-biga.com)